

SAKANAKO LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAKO ATSEDENALDIETAN HAURREN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROGRAMA BAT KUDEATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA KONTRATATZEKO BALDINTZEN PLEGU TEKNIKOA

1. PROGRAMAREN HELBURUAK

Programa honen bidez parte-hartzaileen euskararen erabilera sustatu nahi da, zehazkiago, euskara, hizkuntza akademikoa izateaz gain, haurren harremanetarako hizkuntza naturala bihurtzea da programaren helburu nagusia.

2. PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

Sakanako Mankomunitateak laguntza tekniko kontratatu nahi du, Sakanako Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan D eta A ereduko Lehen Hezkuntza 1, 2 eta 3ko talde orotan jolas monitorizatuen bidezko ordu erdiko 8 saio emateko.

Ikastetxe txikietan, alegia maila bat baino gehiago batera dituzten ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako haurrek parte hartu ahal izanen dute programan, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

- ✓ Ikastetxe bereko haurrek izatea.
- ✓ Lehen Hezkuntzako haurrek izatea.
- ✓ Gela berean egotea, eta, beraz, tutore bera izatea.
- ✓ Taldea osatu ahal izateko haur kopuru nahikoa izatea.

Haur Hezkuntzako haurrek, nahiz eta Lehen Hezkuntzako haurrekin batera gela berean egon, egitasmo honetan ezin izanen dute parte hartu, egitasmoa Lehen Hezkuntzako haurrei zuzenduta dagoen aldetik.

Gehienez ere 47 taldetan eskaini ahal izanen da modulua urtean. Hona taldeen banaketa ikastetxez ikastetxe:

- ✓ Iñigo Aritza ikastola: 5 talde.
- ✓ Andra Mari ikastola: 6 talde.
- ✓ Domingo Bados ikastetxe publikoa: 3 talde.
- ✓ Zelandi ikastetxe publikoa: 8 talde.
- ✓ Urdiaingo herri ikastetxea: talde 1.
- ✓ Arrano Beltza ikastetxe publikoa: talde 1.
- ✓ San Donato ikastetxe publikoa: 4 talde.
- ✓ Arbizuko herri ikastetxea: 2 talde.
- ✓ Luis Fuentes ikastetxe publikoa: 3 talde.
- ✓ San Miguel ikastetxe publikoa: 2 talde.
- ✓ Atakondoa ikastetxe publikoa: 9 talde.
- ✓ Jesusen Bihotza ikastetxea: 3 talde.

Jolas monitorizatuez arduratuko diren begirale edo hezitzaileek bere eginkizunak burutzeko honako titulazioak izan beharko dituzte: Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale titulua eta EGA edo baliokidea. Taldeetan egon behar duen begirale kopurua honakoa izanen da: 20tik gorako taldeetan bi begirale egongo dira, eta taldea osatzeko gutxienez 8 lagun egongo dira. Taldeak gehienez 27 lagunekoak izanen dira.

Kontratua sinatutakoan, esleipendunak programa helaraziko dio Sakanako Mankomunitateari — moduluen egutegia ikastetxeek eta esleipendunak adostuko dituzte—, eta, modulua bukatutakoan, esleipendunak memoria helaraziko dio Sakanako Mankomunitateari. Esleipendunak memorian zehaztuko ditu, besteak beste, zein ikastetxek jaso dituzten modulua, zenbat taldek ikastetxe bakoitzean eta zein eredutakoak. Horretaz gain, begiraleen datuak, moduluetako programazioa eta edukiak —egutegia eta ordutegia barne— eta ikastetxearen, irakaslearen eta begiraleen balorazioak jasoko dira.